



## Eskola-garraiorako diru-laguntza deialdia, 2016-2017

2017ko maiatzaren 29ko Osoko bilkuraren akordio bidez, eskola-garraiorako diru-laguntza deialdia onartu zen, 2016-2017 ikasturterako, lehiaketa bidezko prozedurarekin.

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoarekin bat eginez, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Diru-laguntzen Datu-base Nazionalen kontsultatu daiteke (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans>).

Lehenengoa. Onuradunak.

Diru-laguntza eskatu ahal izango dute Arratzua-Ubarrundian erroldatuta dauden ikasle guztiek, deialdia egiten den datan urtebeteko aintzinasuna betetzen badute erroldan, 27 urtetik beherakoak badira, eta edozein ikastetxe ofizialetan, bai publikoetan bai pribatuetan, derrigorrezko hezkuntza baino goragoko mailako ikastaroak egin badituzte.

Bigarrena. Helburua

Diru-laguntzaren helburua da udalerrri honetako ikasleei laguntza ekonomikoa ematea, udalerrrian ez dagoenez derrigorrezko hezkuntzatik gorako zentrorik, udalerritik kanpora joan behar dutelako.

Diruz lagungarritzat joko da, ondorengo ikasketak egiteko erabiltzen den garraioa:

- Batxilergoa.
- LH, maila ertaina.
- Goi mailako hezkuntza, honakoak hartzen dituena: n
- Unibertsitate-ikasketak
- Goi mailako arte-ikasketak
  
- Arte plastikoen ikasketa profesionalak, eta goi mailako diseinu ikasketak.
- Goi mailako LH.
- Goi mailako kirol ikasketak.



Deialditik kanpora geratzen dira hizkuntza eskoletan egindako hizkuntza-ikasketak. Filologia-ikasketak egiteko garraioa soilik lagunduko da diruz.

Urrutiko ikasketak, era berean, kanpoan geratzen dira.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Diru-laguntza hau arautzen duten oinarriak 2017ko maiatzaren 29an onartu ziren Udalbatzaren Osoko bilkuran, eta 2017ko ekainaren 16ko 68 zenbakidun ALHAOn argitaratu ziren.

Laugarrena. Diru-laguntzaren zenbatekoa.

Laguntzek, edozein kasutan ere, ezingo dute aurkezten den kontzeptuaren kostuaren ehuneko 90a gainditu. Laguntzen zenbatekoa zehazteko, ondorengo irizpideen arabera jokatu da:

- Ikastetxerako garraioa, goizeko edo arratsaldeko ordutegian: 90 euro
- Ikastetxerako garraioa, goizeko eta arratsaldeko ordutegian: 180 euro
- Arabatik kanporako garraioa: 600 euro
- Arabatik kanporako garraioa, ibilgailu pribatuan: 150 euro.

Diru-laguntza ematerakoan, ez badago nahikoa kreditu, diru-laguntz bertan behera geratuko litzateke.

Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea.

Ikasturtea amaitzen den urteko abuztuaren 1a baino lehen.

Seigarrena. Bestelako datuak.

Eskabide-orria eta deialdiaren oinarriak udalaren webgunean daude ikusgai:

[www.arratzua-ubarrundia.eus](http://www.arratzua-ubarrundia.eus)

(Tramiteak/Aurrez-aurrekoak/Diru-laguntzak)

Duranan, 2017ko ekainaren 7an. Alkatea, Maria Blanca Antépara Uribe.

